



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko azaroaren 3a

128. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru-lege proposamenak:

—11-25/PRO-00016. Foru-lege proposamena, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiaztaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzen duena. Osoko Bilkurak aintzat hartu du (2. or.).

F SAILA:

Galderak:

—11-25/PES-00319. Galdera, Ezpeleta Jauregiaren berrantolamenduari eta erakineko patioaren egoerari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).

—11-25/PES-00320. Galdera, Nafarroan animaliak identifikatzeko belarritako elektronikoa ezartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).

—11-25/PES-00321. Galdera, eskola-garraio eta -jantokiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).

—11-25/PES-00322. Galdera, Villatuertan eta Zangozan ireki berri diren adingabeak hartzeko baliabideei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).

B saila:
FORU-LEGE PROPOSAMENAK

11-25/PRO-00016. Foru-lege proposamena, Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzen duena

OSOKO BILKURAK AINTZAT HARTU DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2025eko urriaren 30ean egindako bilkuran, erabaki zuen aintzat hartzea Nafarroan Etxebizitza Izateko Eskubideari buruzko maiatzaren 10eko 10/2010 Foru Legea aldatzen duen foru-lege proposamena, zeina Contigo Navarra-Zurekin Nafarroa, Nafarroako Alderdi Sozialista eta Geroa Bai talde parlamentarioek aurkeztu baitzuten eta 2025eko urriaren 7ko 113. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu baitzen.

Iruñean, 2025eko urriaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

F saila:
GALDERAK

11-25/PES-00319. Galdera, Ezpeleta Jauregiaren berrantolamenduari eta erakineko patioaren egoerari buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak Ezpeleta Jauregiaren berrantolamenduari eta erakineko patioaren egoerari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko irailaren 19ko 105. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Geroa Bai talde parlamentarioak aurkeztutako 11-25- PES-00319 idatzizko galderari dagokionez, Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

Hezkuntza Departamentua kudeaketak egiten ari da NUHEOko eta San Francisco ikastetxe publikoko zuzendariekin, aipatu ikastetxe publikoko ikasleek Ezpeleta jauregiko patioa erabiltzea baimentzeko.

Iruñean, 2025eko urriaren 7an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

11-25/PES-00320. Galdera, Nafarroan animaliak identifikatzeko belarritako elektronikoa ezartzeari buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miguel Bujanda Cirauqui jaunak Nafarroan animaliak identifikatzeko belarritako elektronikoa ezartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko irailaren 19ko 105. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Miguel Bujanda Cirauqui jaunak 11-25/PES-00320 idatzizko galdera egin zuen. Bada, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut:

1. Nafarroan belarritako elektronikoa ezarri beharra dago 2025eko uztailaren 1etik aitzina. Zertan da ezarpen hori eta zer aurreikuspen dago gailu horien hornidurari dagokionez, atzerapenak edo hornidurarik eza saihesteko?

Ardi eta ahuntz azientaren belarritako elektronikoa jada ezarrita dago Nafarroan eta Estatuaren gainerakoan orain dela hamar urte baino gehiagotik. Abeltzainek bi aukera dituzte: edo belarritako bisual + belarritako elektronikorekin identifikatu edo belarritako bisual + errumen boloarekin identifikatu. Arrazen liburu genealogikoen elkarteetako abeltzainek errumen boloa erabili ohi dute; gainerako abeltzainek, aldiz, belarritako elektronikoa. Araudia aldatzeak ekarri du belarritakoen eta identifikazio elektronikoen kodifikazioa aldatzea; horrenbestez, arazo bera dugu, hots, material zaharra amaitu behar dugu eta kodifikazio berria duen materiala eman behar diegu abeltzainei. Urtebete baino gehiago daramagu kodifikazio berria duen materiala ematen, eta gutuna bidali diegu abeltzainei aldaketaren berri emateko.

Lehen, bandera motako bi belarritako bisualekin identifikatzen zen behi azienda eta, identifikatzeko araudi berriari jarraituz, orain, belarritako bisual + belarritako elektronikorekin identifikatzen da. Gainera, zenbakitzearen kodifikazioa aldatu da.

Abeltzaintzat aldatzen den gauza bakarra da belarritakoetako baten burua pixka bat lodiagoa dela; mikrotxip bat duelako da hori. Nafarroaren kasuan, 2024aren hasieratik jada erosi ziren belarritako elektronikoa eta horiek ari gara banatzen kostu berean. Belarritako elektronikoa bisualki berbera da baina, gainera, irakurketa elektronikoa ahalbidetzen du. Horri esker, abeltzainek eta Administrazioak zenbait lan automatizatzen ahal dituzte, hala nola pisatze baskula automatikoak, elikagailu automatikoak, saneamenduetako irakurketak...

2. Zer zehapen-araubide aplikatzen ari da Nafarroan betebeharrak hori betetzen ez bada? Departamentuak betebeharrak horren aplikazioa malgutzea aurreikusten al du, hornidurarik ez badago edo abeltzainekin zerikusirik ez duen egoeraren bat gertatzen bada?

Abeltzainek ganadua identifikatuta izan behar dute araudiak zehazten dituen epeetan. Lehen ere horrela zen; ez da aldatu.

Nahitaezko identifikazio eta erregistro programen barruan, ustategien ehuneko bat ikuskatzen da urtean egiaztatzeko, batetik, identifikazioa eta, bestetik, ustategiaren liburuak, hartara ziurtatzeko animalia trazabilitatea eta Nekazaritza Politika Erkidearen laguntzak behar bezala kudeatzen direla.

Ez dugu hornidurarik eza izan eta iragan urtetik ematen ari gara zenbakitze ezaugarri berriak dituz-

ten identifikazio elementuak; behi azientaren kasuan, elektronikoa.

3. Nafarroako Gobernuak baloratu al du abeltzainei laguntza ekonomikoa edo konpentsazioak emateko neurriak ezartzea, belarritako elektronikoa ezartzeak dakarren gainkostua estaltzeko?

Ez da gainkostu ekonomikoa abeltzaintzako; izan ere, Administrazioak erosten ditu identifikazio elementuak esparru-akordio baten bidez eta abeltzainari euro bateko tasa fakturatzen zaio identifikazio elementuengatik. Behi azientaren kasuan, Administrazioak hartu du bere gain erosketa kosturik handiena.

- Behi azienda. Euro bateko tasa. Belarritako bisuala + belarritako elektronikoa

- Ardi eta ahuntz azienda. Euro bateko tasa. Belarritako bisuala + belarritako elektronikoa edo belarritako bisuala + errumen boloa.

- Zaldiak. Euro bateko tasa. Injektagarria.

4. Zer eragin izan dezake ez-betetzeak Nafarroan Nekazaritza Politika Erkidearen laguntzak jasotzeari begira, eta zer egin du Foru Gobernuak Ministerioaren aurrean abeltzainek kalterik ez izateko?

Araudi berria sartzeko dela eta, ezer ere ez. Iza-ten ahal dituzten intzidentziak ez identifikatzeagatik edo erregistroak ez eguneratzeagatik izaten ahal dira, lehen bezala.

5. Nafarroak nekazaritza eta abeltzaintzaren arloan dituen eskumen osoen barruan, departamentuak jarduteko zer tarte du Estatu oinarriko araudi horren aplikazioa gure lurraldean modulatzeko?

Belarritako elektronikorako aldaketa egin da behi azientan, eta horrek ez die prezio handiagoa ekarri abeltzainei.

Epeen gaiari dagokionez, Ministeriori eskatu zaio identifikazio sistemen arteko aldi baterako aldi handiagoa; baina, azkenean, Ministerioak markatzen ditu epeak.

Ondorio hauek ateratzen ahal dira orokorrean:

- Ardi eta ahuntz azientan eta zaldi azientan, urteak dira identifikazio elektronikoa erabiltzen dugula eta, horri esker, hobeto identifikatzen ahal ditugu animaliak eta automatizatzen ahal ditugu zenbait prozesu. Zenbakitze aldaketa intendentzia arazo bat da guretzat, baina iaztik ari gara erosten zenbakitze berria duen materiala.

- Behi azientaren kasuan, belarritako elektronikoa bidezko identifikazioak ez dakarkie aldaketarik edo kosturik abeltzainei eta abantaila asko ekartzen

ahal dizkie ustiategiaren kudeaketaren automatizazioan. Borondatez eskatzen duen abeltzainak ere berriz identifikatzen ahal ditu bere aziendak, animalia guztiak elektronikoki identifikatuta izateko eta prozesuak automatizatuta izateko, hala nola jeztearen kontrola, pisatze automatikoak, kudeaketa, saneamendua eta elikatze automatizatua.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2025eko urriaren 7an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-25/PES-00321. Galdera, eskola-garraio eta -jantokiei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miren Itxaso Soto Díaz de Cerio andreak eskola-garraio eta -jantokiei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko irailaren 19ko 105. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko urriaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Geroa Bai talde parlamentarioak aurkeztutako 11-25-PES-00321 galdera idatziari dagokionez, Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

Eskola-garraioari dagokionez, ibilbideen iraupenaren gainean, honako datu hauek daude:

Bederatzi plazatik goitiko ibilgailuetan (autobusak) egindako eskola-garraioa ibilbide luzeenak hauek dira:

			denbora
0336	Olazti, Altsasu, Urdiain, Iturmendi, Bakaiku, Etxarri Aranatz, Arbizu, Lakuntza, Arruazu, Uharte Arakil, Irañeta, Satrustegi, Etxarren, Irurtzun	Burlata IB / Uharte IIP / Nekazaritza eta Basogintzako IB / María Ana Sanz IB / Virgen del Camino IB	85 min
0225	Iruñerria, Ostitz, Arraizko Bentak	Elizondo LE IIP	74 min
1010	Caparroso (3), Martzilla (2), Faltzes (1), Azkoien (3), San Adrián (4), Cadreita (2)	Tudela Valle del Ebro BHI / Tuteru ETI IIP	93 min
0108	Iruña Oliveto kondea, Irurtzun (9), Uharte Arakil (7), Etxarri Aranatz (29)	Altsasu S. Migel I BHI / Altsasu Sakana LH IIP	56 min

Gehienez bederatzita plaza dituzten ibilgailuei dagokienez (taxia eta AIG), ibilbide luzeena 75 minutukoa da eta 988 ibilbideari dagokio (Corella-Gares, CEP / Oinarrizko Graduetako ikasleentzat). Ibilbidea astelehenetan eta ostiraletan egiten da (astelehena: bizilekua - ikastetxea / ostirala: ikas-

tetxea - bizilekua), ikasle horiek ikastetxean bizi baitira eskola-egunetan.

Bederatzita plazatik goitiko ibilgailuetan (autobusak) egindako ibilbide laburrenak, aldiz, hauek dira:

			denbora
9308	Zenbait geltoki Tuteran (13)	Tutera Torre Monreal HBI	16 min
0333	Merindadeen plaza (Iruña) 70	Uharte BHI	18 min
0525	Mutiloa (49)	Iruñeko Plaza Cruz BHI	26 min
0517	Mutiloa (66)	Iruñeko Plaza Cruz BHI	13 min
0517B	Mutiloa (55)	Iruñeko Plaza Cruz BHI	12 min
0203	Ituren zuzena (1), Ituren (29), Elgorriaga (21)	Doneztebe S. Miguel HLHIP / Doneztebe Mendaur DBHI	8 min
0913	Funes(105), Azkoiengo Nekazaritza Etxaldea	Azkoiien Ribera del Arga BHI	6 min

Gehienez bederatzita plaza dituzten ibilgailuei dagokienez (taxia eta AIG), iraupen laburrenako ibilbidea sei minutukoa da, hain zuzen 956 ibilbidearena (Beire - Erriberri).

Gainerako ibilbideak aurretik esandako gehieneko eta gutxieneko tarteen barrenean daude, betiere apirilaren 27ko 443/2001 Errege Dekretuan, Eskola-umeen eta adingabeen garraiorako segurtasun-baldintzei buruzkoan, estipulatua betez. Errege Dekretuak, 11. artikuluan, xedatzen du bidaiaren gehieneko iraupena ez dela ordubetetik goitikoa izan behar bidaiaren noranzko bakoitzean, egoera normalean. Halere, iraupen luzeagoak aurreikusten dira behar bezala justifikatutako salbuespenezko kasuetan.

Halaber, nahitaez bete beharrekoak dira gidarien gidatzeko eta atsedean hartzeko denborei buruzko arauak, zeinak ezarriak baitaude urriaren 18ko 2242/1996 Errege Dekretuan, 3820/85 eta 3821/85 zenbakietako Erregelamenduak (EEE) aplikatuz.

Informazioari dagokionez, eskola-garraioaren gainean ibilbideei eta ibilbideko nahiz geltokiko ikasleei buruz eskatutako datuekin, jakinarazten dizut galdera idatzian aipatzen duzun informazioa Departamentu honetan dagoela, eta hura igortzeko eragozpenik ez dagoela 15. artikuluko erregelamenduzko bideetatik informazio eskaera gisa eginez gero.

Eskola jantokiei dagokienez, hona hemen banakatuak, ikasle erabiltzaileen tipologiaren arabera eskualdeko jantokiei buruz Hezkuntza Departamentuan dauden datuak:

- Diruz lagundu gabeak: 4954
- Garraiatua: 2623
- Garraiatua + ekonomia ahula: 186
- Despopulaziorako arriskua: 56
- Ekonomia ahula: 763
- Ikasleak orotara eskualdeko jantokietan: 8582

Jantoki arruntetako ikasleei dagokienez, gaur egun ez dago daturik. Jantoki arruntak dituzten ikastetxeek diruz lagundutako ikasleen datuak baino ez dituzte EDUCAn erregistratu behar, eta irekia dute datuak Hezkuntza Departamentura igortzeko epea urriaren 31ra arte, honako honetan xedatutakoarekin bat etorritz: 99/2025 Ebazpena, maiatzaren 28koa, Digitalizazioko eta Hezkuntza Zerbitzuetako zuzendari nagusiak emana, eskola jantokien zerbitzua emateko jarraibideak onesten

dituena, jantoki baimenduen zerrenda jendaurrean jartzen duena eta 2025-2026 ikasturterako tarifak eta kuotak onesten dituena (120. Nafarroako Aldizkari Ofiziala, 2025eko ekainaren 17koa) <https://bon.navarra.es/eu/iragarkia/-/texto/2025/120/9>

Iruñean, 2025eko urriaren 7an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

11-25/PES-00322. Galdera, Villatuertan eta Zangozan ireki berri diren adingabeak hartzeko baliabideei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak Villatuertan eta Zangozan ireki berri diren adingabeak hartzeko baliabideei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko irailaren 19ko 105. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko urriaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak 11-25/PES-00322 galdera egin du, idatziz erantzun dakion. Bada, Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetak, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut:

Villatuertan ireki den baliabidea zera da: hartzeko, laneratzeko eta gizarteratzeko baliabide pilotu bat, eta barne hartzen du, lagun egiten dien gazteen oinarrizko beharrak guztiz betetzeko eginkizunekin batera, ostalaritzako berariazko

prestakuntza. Eratua dago adin-nagusitasunetik hurbil dauden hamabost neska eta mutil hartzeko, baldin eta prestakuntzan interesa agertu badute.

Zangozako baliabidea ez da ireki oraindik, baina hamabost plaza ere izanen ditu.

Adingabeen zentro berriak ireki diren herrietan bizikidetzaz zaintzeko ezarritako neurriei dagokienez, jarraipen-batzordeak eratu dira, honako hauek osatuak: udalaren ordezkariak, Haurtzaroaren eta Familiaren Zuzendariordetzaren ordezkariak, Migrazio Politiketako Zuzendaritzaren ordezkariak, Bizikidetzako Zuzendaritzaren ordezkariak, baliabideko arduradunak eta herriko kolektibo sozialen ordezkariak. Batzordeek xedetzat dute aztertzea zer neurri hartzen ahal diren gazteen ingurunean gizarte-inklusioa lortzeko, zereginean komunitate sareek parte harraraziz, bai eta inklusioa zailtzen duten egoerak modu goiztiarrean antzematea ere.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko urriaren 8an

Eskubide Sozialetak, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

